

ZELAN DAGO BIZKAIKO GARBIKUNTZA HITZARMENA?

Bi urte daramagu hitzarmena negoziatzen. Bi urte horietan patronala krisiaz baliatu da igoera ziztrin bat eskaintzeko: **2 euro eskas egunean, 3 urteko epean.**

Hori dela-eta, ELAk elkarretaratze bateratuak egitea bultzatzen du, gainerako sindikatuek egiten jarraitzeari utzi zioten ekainean beharrezkoak ez zirelakoan.

Ordutik hona patronalaren proposamena berbera izan da. **ELARENTZAT PROPOSAMEN HORI EZ DA NAHIKOA**, eta gainerako sindikatuentzat ere ez, osterantzean hitzarmena sinaturik egongo zen dagoeneko. **EZ GAITEZEN OKER IBILI, ELAK SINATU BAI SINATZEN DITUELA HITZARMENAK, BAINA ONAK BAKARRIK.** Hala egin du Gipuzkoako Garbikuntza Hitzarmenean, eta hala egin badu hobea delako izan da; Bizkaikoa baino hobea, bai soldatetan, bai gizarte-arloko zenbait puntutan.

ZER DAGO JOKOAN NEGOZIAZIO HONETAN?

Negoiazioaren hasieratik **3 lan-erreforma** izan ditugu, sektoreko langileei oso ondorio txarrak ekarri dizkietenak:

- 1- **ESTATUKO GARBIKUNTZA-HITZARMENA** negoziatzen ari dira sindikatu batzuk, gure mahaian ere dauden sindikatu berberak. **Estatuko negoziazioak ahalmena kendu diezaguke gure hitzarmenaren hainbat gai hemen negoziatzeko.**
- 2- **MALGUTASUNA.** Besterik hitzartu ezean, enpresek gu behartzeko aukera izango dute **lanaldiaren %5 beraiei komeni zaienean egitera**, alegia, gure lan-ordutegitik kanpo, enpresari komeni zaion egunean, eta "egunean bertan" abisatuz.
- 3- **AURRERA-ERAGINA.** Orain arte hitzarmenak, iraungita ere, indarrean jarraitzen zuen hurrengo sinatu arte. Rajoyren erreformaren ostean, besterik sinatzen ez bada galdu daiteke aurrera-eragina.
- 4- **SUBROGAZIOA.** Bizkaian enpresa batean hiru hilabetez lanean jardun duten guztiak zerbitzua jaso duen enpresa berrira subrogatuko dira. **Estatuko negoziazioan 6 hilabete eskatuko diren edo ez eztabaidatzen ari dira.**

NORK DU ERRUA GURE HITZARMENA ORAINDIK SINATU GABE EGOTEAGATIK?

EGOERA HONEN ERRUDUN NAGUSIAK ENPRESAK DIRA, oraingo egoera aitzakiatzat hartuz lazeria baino ez baitute eskaini.

ELA ez da hasiko balioesten beste sindikatuen lana, ez baita lagungarria arazoa konpontzeari begira.

ELA ekinean hasiko da, patronalari deituz eta proposamen berri bat aurkeztuz.

Murrizketek eta erreformek ez dute gure lanpostua ziurtatuko, eta gobernu guztiak patronalari begira daude; hori horrela, langileok antolakuntza eta batasuna behar ditugu, gure indarrez ez bada, gure eskakizunak ez dira aurrera aterako.

Afiliaturik egotea, zuretzat ez ezik, denontzat ere da onuragarria; hori baita modurik onena gure hitzarmenari eusteko.

ZAIN DEZAGUN GURE LANA

ZAIN DEZAGUN HITZARMEN DUIN BAT